

## Euskaltegiak ertzengana



**ARKAITZ ZARRAGA  
AZUMENDI**  
EUSKARA IRAKASLEA

**U**EUko Glotodidaktika Sailaren topaketetan euskaltegiez eta interseksionalitateaz aritu dira hainbat aditu eta biktima. Ikasleak egon dira erdigunean, pribilegiarik gabeko ikasleak, zapalduak, bazterretan daudenak. Izan ere, genero disidenteeak, gorrek, itsuek, gaitasun askotarikoak dituztenek, beste kultura batzuetatik datozenek, espetxeetan dauden herritarrek... euskara ikasteko eta euskaldunon komunitateko kide sentitzeko zailtasunak dituzte.

Gorrek, itsuek edota dislexiaren bat duten ikasleek kontuan har ditzagun eskatu digute, euskara haienganatzeko moduez eurei galdetzeko. Materialak, irakasleen jarduerak, talde dinamikak... egokitu egin behar dira, ikasgelako praktikak irisgarriak bilakatu. Baina, gainera, azpimarratu digute euren ikas prozesua askotan luzeagoa izaten dela, azterketa sistemak hutsune handiak dituela haientzat...

Ikusi dugu, era berean, genero disidente euskaldunek modu bereizian bizi dutela identitate bakoitza (euskalduna eta disidentea). Euskara eta "luma", adibidez, ez dira bateragarriak izan. LGT-BI+ kolektibokoek ez dute "baimenik" euskara "zikintzeko". Euskaltegiok asko dugu horren gainean hausnartzeko, material didaktikoak berrikusteko...


Askok irudikatu nahi dutenetik urrun, etorkinek ez dute euskara traba moduan

ikusten eta euskaldundu nahiko lukete, baina bidea ez da xamurra. Dirua eta denbora dituzte traba nagusi, baina, irakasteko moduak ere ez die gehiegi laguntzen. Askok ez dute irakurtzeko ohituarik edo ez dute gramatika ezagutza handirik, eta gurean asko dago idatzitik, gehiegi, eta gramatika oraindik ere ardatz garrantzitsua da. Azterketen manuak ere ez du laguntzen.

Espetxean, gizartearen ertzik baztertuenean, euskaldun askorentzat euskara benetan da territorio libre bakarra. Baina, euskara hain hurbil izan ez dutenek ere euskara oso urrun sentitzen dute han. Hala ere, azken aldian besarkadekin eta musuekin lotu dute, begirada ilunen eta bortizkeria handiko ezleku horretan. Gainera, euskarak ere behar ditu hango biztanleak, berrikuntza lexiko eta aberastasun iturri oparoa baitira edozein gizartetan.

Ertzetako hiztunek belarritik tiraka esan digutenez, diskurtsoetatik praktikara pasatzeko unea da, izan ere, "jendea bazterrean geratzen ari da, eta hori ezin da onartu". Baina, gainera, komunitatea aberastera datoz, eta hizkuntza bera ere bai. Sarririk topaketan esan bezala, arautik kanpo geratzen den guztia behar du hizkuntzak. Arauak, sarritan gure hizkuntza eta gure sormen aukerak mugatzen ditu, sorkuntza gehiena arautik kanpo egiten baita. ●

## Garaiz alde egiten jakitea



**EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE**

**B**adaude hitzak, formak, keinuak eta jarrerak gorputzean sartu eta handik irten ezin daitezkeenak. Gorputzean sartu eta bertan usteltzen direnak. Gorputza zulatzen dutenak. Gorputza deskonposatzen dutenak. Gorputza desagerrarazten dutenak. Eta akabo. Ezin daiteke deskonposatu den gorputz bat bere aurreko egoera batera itzuli. Ez behala. Galeraren txanda. Kasurik onenean, konposta egoki egiten bada, eraldaketa dago horren ostean.

Ez da behar kanpo eraso fisiko bat gorputz bat ahultzeko, gaitasun hori daukate hitzek, formek, keinuek edota jarrerek. Burua eta gorputza ezinbes-

tean daudelako elkarrekintzan; batak besteari eragiten dio. Ezin dira banatu.

Bizipen batzuek min handiagoa ematen dute gogoratzen direnean bizi izan direnean baino. Gogoratu, gorputzean zizelkatu diren marken bitartez eta traumatik gogoratzen direlako eta bizi, inertziatik eta normaltasunetik bizi direlako, ez sufritzeko beharrezkoa delako ez pentsatzea eta gertatzen ari dena zure buruari justifikatzea. Lagun batek behin esan zidan super botere bat aukeratu ahalko balu, lekuetatik garaiz alde egiten jakitea aukeratuko lukeela. Ez luzatu txikleka eta zaindu zeuen buruak. ●